



UR BAZTERREKO BIZITZAILE JABEAREN GIDALIBURUA

Erreka-bazterren zaintza
eta ur-bazterreko basoen artatzea



ERREKEI BURUZKO ARAUBIDEA

Erreka edo lubakia?

Erreka gainazaleko jariatzea da, zeinen bidea, maiz, naturala den. Errekaren ezaugarritzat ditugu ur-bazterrak, substratu berezi bat (harri xeheak, sedimentuak...); lurpeko lubakia ez bezala, ura artetan isur daiteke.



eskana nazazu.


Zu zaren tokiko ur-jariatzearen estatutua ezagutzeko, Pirinio Atlantikoko Lurraldeen eta Itsasoaren Departamenduko Zuzendaritzak (LIDZ-DDTM) finkatutako kartografia kontsulta dezakezu.

http://carto.geo-ide.application.developpement-durable.gouv.fr/164/COURS_D_EAU_VP.map

Nork artatzen ditu errekek?

Ur-bazterreko bizitzailerak erreka maiz artatu behar du.

Besteak beste, landaredia artatu behar du, ur-jariatze librea tratatzen duten porroskak eta metaketak kendu behar ditu. Zaintza lan hori egin behar da ur-bazter gainaldetik errekaren ohe erdiraino jabego pribatuetan diren errekei dagokienez, lurraldean ugari direnak.



eskana nazazu.

Erreka bat jabego pribatuan edo publikoan denetz ez badakizu, Euskal Hirigune Elkargoko Erreken Kudeaketa zerbitzuko teknikariek jakinaraz diezazukete (helbideak 8. orrialdean).

<https://www.communaute-paysbasque.fr/vivre-ici/leau/les-cours-deau-et-bassins-versants>

Baimenik behar ote da?

Ez da baimen berezirik behar landarediaren usaia-ko artatze lanetarako, arinak direlarik: sasiak garbitzea, xedarratzea, lepaketa, mozketa, etab.



Pirinio Atlantikoko Lurraldeen eta Itsasoaren Departamenduko Zuzendaritzaren (LIDZ-DDTM) helbideak Ipar Euskal Herriko uraren polizia unitatea
Toki Lana Egoitza - Uroilanda bidea, 7.
CS 78542 - 64185 Baiona - Te. 05 59 80 86 00



Herriak esku hartzea baimendu behar du Eremu Oihantsu gisa izendatutako leku batean edo Tokiko Hirigintza Planean (THP) zaindu behar den paisaia zati batean kokatua baldin bada.

Gainerateko artatze lan handiagoak aitortzen edo baimen eskaera baten gaia izan behar dira. Horiek dira landarediaren artatze larriak, hots, ibilgailuak errekan pasaztea, sedimentuen karrakatzea, ur-bazterren sendotzea, pitak ezartzea, etab. Eskaera Lurraldeen eta Itsasoaren Departamenduko Zuzendaritzari (LIDZ-DDTM) zuzendu behar zaio.

Nola lortu Euskal Hirigune Elkargoaren laguntza?

Ur inguruneen kudeaketa eta uholdeen prebentzioaren eskumena baitu (GEMAPI), Euskal Hirigune Elkargoak arriskupeko guneetan bizi direnak lagun ditzake errekek artatzeko duten eginbeharrean. Horretarako, prefetaren erabakien bidez interes orokorrekotzat deklaraturako obra-egitarau bat badu bere esku.



Ur-bazterreko basoa, erreka baten edo, oro-korkiako, gune heze baten hegietan den landaredi multzoa da.


Landaredi honen artatzearen helburua da ur-jariatzea ahalbidetzea, errekaren ohea landarediaren kolonizaziotik babestuz (zuhaitzak, zuhaixkak edo sasiak). Bakoitzak du bere eginkizuna...

ERREKA BAZTERREKO LANDATZEAK

Zergatik landatu erreka bazterrean?

- Sustrai-sistemak sortzen duen higadura menperatzeko
- Bioaniztasuna errazteko
- Uren nolakotasuna hobetzen laguntzeko
- Paisaia-dinamika mantentzeko

Non landatu?



Nola esku hartu?

- Ontzi-bolumenaren bikoitzezko zilo bat egin
- Hiruzpalau metroko tartea utzi landare batetik bestera
- Landare bakoitzari zurkaitz bat ezarri
- Lehen udaren denboran, asko idortzen diren lurretan, ureztatu
- Lehen urteetan, sasiak eskuz garbitu landareak libratzeko
- Maiz moztu (3 - 5 urtetarik behin, guti gorabehera, haize-hartzea murrizteko)

Noiz?

Hoberena da azaroa eta martxoa artean landatzea (izozteetatik kanpo, landareen geldialdi begetatiboaren denboran).

- | | |
|-------------|-----------|
| Urtarrila ✓ | Uztaila |
| Otsaila ✓ | Agorrila |
| Martxoa ✓ | Iraila |
| Apirila | Urria |
| Maiatza | Azaroa ✓ |
| Ekaina | Abendua ✓ |

Baztertu, debekatu behar diren praktikak

- Makal kultibarrak, koniferoak, espezie exotikoak edo apaingarriak landatzea
- Plastikozko estalkiak erabiltzea
- Belarrak kimikoki kentzea

Indarrean den araubidearen arabera, tratamendu kimikoa erabiltzea debekatua da:

- 1/25000 eskalako IGN kartan adierazitako erreka eta ur gune guztietatik 5 metro baino gutiagora;
- urmaeletatik, iturrietatik metro bat baino gutiagora.

- Belar-geruza (ur-bazter oinean):** ur-bazterrearen higadura murrizten laguntzen du landaredi moldagarri bati esker.
- Zuhai-xka-geruza (ur-bazter erdian):** ur-bazterrak egonkortzen ditu ur-jariatzeak trabatu gabe.
- Zuhaitz-geruza (ur-bazter gainaldean):** ur-bazterrak finkatzen ditu zuhaitzen sustrai-sistemari esker.

UR-BAZTERREN ARTATZEA



Zergatik artatu behar da ur-bazterretako landaredia?

- 🌱 Bioaniztasuna errazten duen ingurunea mantentzeko
- 🌱 Ur-bazterrek higaduraren aurka egonkortzeko eta usaiko uholdeen eragina murrizteko
- 🌱 Ur-isuriaren iragazketa-gune bat mantentzeko

Zer esku hartze mota egin beharko da?

Landaredi orekatu bat mantentzeko, neurri batzuk hartzea garrantzitsua da:

- 1 - **Ur-bazter gainaldean**, zuhaitzak artatzea bioaniztasuna, ur-bazterren egonkortasuna eta ur-isuriaren iragazketa mantentzeko;
- 2 - **Ur-bazter gainaldearen behean**, elementu lodiak kentzea eta zuhaixka-espezieak eta belar-espezieak artatzea ur-bazterren egonkortzeko, erreka berririkitzea ahalbidetzeko eta ur-bazterren higadura eta uholde arriskuak mugatzeko.

Eskuzko artatze-bide bat: birlandaketa

Printzipioa: moztutako zuhaitza berriz haziko da muskilak sortuz bere oinean.

Ur-bazterreari egokitutako esentziak: sahatsa, hurrondoa, haltza, lizarra.

Egin-moldea: enborra lurzorutik ahal bezain hurbil moztu; muskilak artatu 3 - 5 urtetarik behin.

EGOKIA DEN GARAIA

Abendua

Urtarrila

EGOKIENA DEN GARAIA

Otsaila ✓

Martxoa ✓



Erreken kudeaketari buruzko edozein galdera teknikorako, Euskal Hirigune Elkargoko erreka-teknikariekin harremanetan jar zaitezke.

Erreken eta arro hidrografikoen Zuzendaritza
Putillenea karrika, 5-7 - 64122 Urruña

TEL. 05 59 48 30 85
rivieres@communaute-paysbasque.fr

